

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2942

*1014/2024 EBAZPENA, maiatzaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez adierazten den Joseba Julen Ballestero Zárrega jaunak, Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen kargua uzten diola erretiroagatik.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 31ko 152/2014 Ebazpenaren bidez (2014ko otsailaren 27ko EHAA, 40. zk.), Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen lanpostua betetzeko deialdi publikoa egin zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 10eko 443/2014 Ebazpenaren bidez (2014ko maiatzaren 6an argitaratua), Joseba Julen Ballestero Zárrega jauna Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentea izendatu zen.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, zuzendari nagusi honek hau

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Joseba Julen Ballestero Zárrega jauna Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerente lanpostutik kentzea, erretiroa hartu duelako, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2024ko uztailaren 14ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen Zuzendaritzari eta Plangintzako eta Kudeaketako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 23a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.